Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko martxoaren 13a, ostirala — 49 — Viernes, a 13 de marzo de 2026

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Gipuzkoa Digitala programaren Datekin dirulaguntza lerroaren oinarri arautzaileak eta 2026ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2026ko otsailaren 17ko bilkuran:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoak erronka gisa planteatzen du digitalizazio eta eraldaketa teknologikoko prozesu globalei egokitzea eta aurre hartzea eraginkortasunaren, lehiakortasunaren, berrikuntzaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik sortuko diren aukera berriak aprobetxatuz.

Gipuzkoako Aldundiaren ikuspegiak lehiakortasuna ulertzen du ekimena eta konpromiso kolektiboa sustatzen duen komunitate baten motor gisa. Esparru horretan, berrikuntza funtsezkotzat jotzen da jarduera ekonomiko berriak, kalitatezko enplegua eta bidezko hazkundea sortzeko. Adimen artifiziala (AA), Gauzen Internet (IoT), automatizazio industriala, hodeiko konputazioa eta datuen analisia bezalako teknologiak eraldaketa hau bultzatzen ari dira, dagoeneko ehun industrialean gauzatzen ari den aldaketaren abiapuntua izanik. Hainbat azterlan bat datoz esatean AAren ezarpena enpresa-lehiakortasuna birdefinitzen ari dela, estrategikoki indartuz hura txertatzen duten erakundeen errendimendua eta posizioa.

Aurrerapen teknologiko horrekin jarraituz, industria-sektoreak aldaketa nabarmenak izan ditu digitalizazioari eta 4.0 industriari lotutako soluzioak gehituta. Garapen horiek eraginkortasun operatiboa, bezeroekiko harremana eta balio-kateko integrazioa hobetu dituzte, baita negozio-eredu eta produktu berritzaile berriak sortzen lagundu ere.

Hala ere, aurrerapen horiek sendotzeak hainbat erronkari aurre egitea eskatzen du, eraldaketa digitalak planteatzen baititu erronka teknikoak –inbertsioarekin, eskalagarritasunarekin edota zibersegurtasunarekin lotutakoak– eta erronka kulturalak –aldaketaren kudeaketari, etengabeko trebakuntzari edo kultura berritzailea sustatzeari lotutakoak–. Hala eta guztiz ere, sektoreak bilakaera positiboa du.

Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiak, eraldaketa digitala behar estrategikotzat hartzen du, batez ere ETEentzat. «2025 State of the Digital Decade» txostenak 2030eko Hamarkada Digitalaren helburuak lortzera bideratutako Europako politiken betetzemaila ebaluatzen du, eta nabarmentzen du hodeian konponbideak hartzea, datuen analisia eta adimen artifiziala babestearen garrantzia.

Gipuzkoa Digitala Gipuzkoako enpresen eraldaketa digitala bultzatzera bideratutako programa bat da. Erakunde bakoitzaren heldutasun digitalera egokitutako akonpainamendua eskaintzen du. Digitalizazioa prozesu uniformea ez dela kontuan hartu-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y PROYECTOS ESTRATÉGICOS

*Bases reguladoras y convocatoria 2026 de la línea de subvención Datekin del programa Gipuzkoa Digitala.*

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 17 de febrero de 2026:

El Plan Estratégico 2024-2027 de la Diputación Foral de Gipuzkoa establece como reto adaptarse y anticiparse a los procesos globales de digitalización y transformación tecnológica, aprovechando las nuevas oportunidades que surgirán desde el punto de vista de la eficiencia, la competitividad, la innovación y la sostenibilidad.

La visión de la Diputación concibe la competitividad como motor de una comunidad que promueve la iniciativa y el compromiso colectivo. En este marco, la innovación se considera esencial para generar nuevas actividades económicas, empleo de calidad y un crecimiento equitativo. Tecnologías como la inteligencia artificial (IA), el Internet de las Cosas (IoT), la automatización industrial, la computación en la nube y el análisis de datos están impulsando esta transformación, constituyendo el punto de partida de un cambio que ya se está materializando en el tejido industrial. Diversos estudios coinciden en que la adopción de la IA está redefiniendo la competitividad empresarial, reforzando el rendimiento y la posición de las organizaciones que la integran de forma estratégica.

En continuidad con este avance tecnológico, el sector industrial ha experimentado cambios significativos con la incorporación de soluciones asociadas a la digitalización y a la Industria 4.0. Estos desarrollos han mejorado la eficiencia operativa, la relación con los clientes y la integración en la cadena de valor, además de favorecer la aparición de nuevos modelos de negocio y productos innovadores.

Sin embargo, la consolidación de estos avances requiere afrontar diversos desafíos, ya que la transformación digital plantea retos técnicos –relacionados con la inversión, la escalabilidad o la ciberseguridad– y retos culturales –vinculados a la gestión del cambio, la capacitación continua o la promoción de una cultura innovadora–. A pesar de ello, el sector mantiene una evolución positiva.

Desde la Dirección General de Innovación, la transformación digital se concibe como una necesidad estratégica, especialmente para las PYMEs. El informe «2025 State of the Digital Decade» que evalúa el grado de cumplimiento de las políticas europeas dirigidas a alcanzar los objetivos de la Década Digital 2030, destaca la importancia de apoyar la adopción de soluciones en la nube, análisis de datos e inteligencia artificial.

Gipuzkoa Digitala es un programa orientado a impulsar la transformación digital de las empresas de Gipuzkoa. Ofrece un acompañamiento adaptado al nivel de madurez digital de cada organización. Considerando que la digitalización no es un proce-

EK\CV GAO-I-2026-01254

ta, programak ikuspegi malgua planteatzen du, enpresek eboluzio digitalaren hainbat etapatan aurrera egitea errazten duena.

Datekin lerroa, Gipuzkoa Digitala programaren barruan, beren prozesuetan datuak sortzen dituzten baina modu optimoan erabiltzen ez dituzten enpresei zuzenduta dago. Ildo horrek bultzatzen du datu-bilketa hutsetik informazio estrategiko bihurtzeko trantsizioa, enpresaren arloak optimizatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko informazio objektiboaren bidez denbora errealean. Datuak aztertzeko eta ustiatzeko adimen artifizialaren aplikazioa barne hartzen du, baita adimen artifizial sortzailearena ere, eraginkortasun operatiboa areagotzeko, merkatu-joerak aurreikusteko, bezeroaren esperientzia hobetzeko edota erabaki estrategikoak hartzea errazteko.

Dirulaguntza ildo hori 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DLPE) jasota dago.

2026ko deialdian, 2022ko martxoaren 22an Diputatuen Kontseiluak onetsitako oinarri orokor arautzaileak aplikatuko dira (2022ko apirilak 5eko 65 zk. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean).

Horiek horrela, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onestea, Gipuzkoa Digitala Datekin dirulaguntza lerroan dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile espezifikoak (I. eranskinean jasotakoak).

*Bigarren.* Onestea 2026ko deialdia Gipuzkoa Digitala programaren Datekin dirulaguntza lerroan, erabaki honen II. eranskinean jasota dagoena.

*Hirugarren.* 2026ko ekitaldiko deialdiari aurre egiteko 1.000.000,00 €ko gastua baimentzea, aurrekontu sail hauen kontura:

— Datekin.

1 0520.210.770.00.07 2026: 700.000,00 €.

5 0520.210.770.00.07 2027: 300.000,00 €.

Aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak onartutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

*Laugarren.* Erabaki honek onesten dituen oinarri arautzaileek ondorioak izango dituzte Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egun beretik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean argitaratu eta biharamunetik hasita BI hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2026ko otsailaren 23a.—Segundo Diez Molinero, Departamentuko idazkari teknikoa. (1254)

so uniforme, el programa plantea un enfoque flexible que facilita el avance de las empresas en distintas etapas de su evolución digital.

La línea Datekin, dentro del programa Gipuzkoa Digitala, se dirige a empresas que generan datos en sus procesos, pero no los utilizan de forma óptima. Esta línea impulsa la transición desde la mera recolección de datos hacia su conversión en información estratégica, con el fin de optimizar áreas de la empresa y mejorar la competitividad mediante información objetiva en tiempo real. Incluye la aplicación de inteligencia artificial para el análisis y explotación de datos, así como de inteligencia artificial generativa, con el propósito de incrementar la eficiencia operativa, predecir tendencias de mercado, mejorar la experiencia del cliente y/o facilitar la toma de decisiones estratégicas.

Esta línea de subvención se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 (PES).

En la convocatoria 2026 se aplicarán las bases reguladoras generales aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 22 de marzo de 2022 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 65 de 5 de abril de 2022).

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras específicas que se adjuntan como anexo I al presente acuerdo para la concesión de las subvenciones de la línea Gipuzkoa Digitala: Datekin.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2026 del programa Gipuzkoa Digitala en su linea de subvención Datekin, que se acompaña como anexo II al presente acuerdo.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de 1.000.000,00 € para hacer frente a la convocatoria del ejercicio 2026 con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

— Datekin.

1 0520.210.770.00.07 2026: 700.000,00 €.

5 0520.210.770.00.07 2027: 300.000,00 €.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

*Cuarto.* Las bases reguladoras que se aprueban en virtud del presente acuerdo surtirán efectos desde el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante la Sección de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal de Instancia de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 23 de febrero de 2026.—El secretario técnico del departamento, Segundo Diez Molinero. (1254)

EK\CV GAO-I-2026-01254

I. ERANSKINA

*Dirulaguntza lerroaren oinarri bereziak: Datekin*

*1. oinarria. Xedea.*

Industria-sektoreak dagoeneko ekin dio eraldaketa digitalari, teknologia disruptiboak txertatzeak eta informazioaren teknologiak gero eta gehiago erabiltzeak bultzatuta. Prozesu horri esker, ekoizpen-ingurune eraginkorragoak, konektatuagoak eta balio-katearekin integratuagoak izaten ari dira.

Testuinguru horretan, datuak funtsezko baliabide gisa finkatu dira, bankuak edo komunikabideak bezalako sektoreetan gertatu den bezala. Industria-enpresa aurreratuenak datuak, analisi aurreratuak eta adimen artifizialaren gaitasunak baliatzen ari dira balio-sorketa hobetzeko eta beren negozio-ereduak pixkanaka eraldatzeko.

Halaber, digitalizazioari esker, produkzio-prozesu malguagoak eta modularragoak lor daitezke, ekipo adimendunei, automatizazio-teknologiei eta ingurunera egokitzeko gai diren sistemei esker. Gaitasun horrek eskariari azkarrago erantzuteko aukera ematen die enpresei, ekoizpen-bolumenak egokitzeko eta pertsonalizazio handiagoko beharrei erantzuteko.

Hala ere, eraldaketa digitala ez da soilik produkzio-eremura mugatu behar. Haren inpaktuak enpresa-prozesu guztiak hartzen ditu barnean, hala nola hornikuntza, langileen hautaketa, kalitate-kontrola, prozesuen monitorizazioa, produktuaren diseinua, bezeroentzako arreta edo zerbitzu berrien garapena.

Hainbat urtetan datuak sentsorizatzera eta biltzera bideratutako ekimenen ondoren, informazio hori teknika aurreratuen eta adimen artifizialaren bidez erabiltzeko eta prozesatzeko potentzial handia dago oraindik. Potentzial hori lagungarria izan daiteke banaketa- eta hornidura-prozesuak, merkataritza-praktikak, lanaren antolaketa, ekoizpen-eraginkortasuna edo zerbitzizazioarekin lotutako negozio-eredu berrien garapena hobetzeko.

Lerro honen helburua da Gipuzkoako enpresen artean bizkortzea datuen balorizazio prozesua eta/edo adimen artifiziala hartzeko prozesua, enpresaren eta negozio ereduaren eraldaketa digitala lortzeko; horretarako, bultzatuko da datuak informazio garrantzitsu bihurtzen eta adimen artifizialeko soluzioen garapenean adituak diren kanpoko eragileen kontratazioa, datuak enpresarentzat informazio erabilgarri bihurtzeko.

Proiektuak lotuta egon daitezke Big Data, Machine Learning, hizkuntza naturalaren prozesamendua, ikusmen artifiziala, adimen artifizial sortzailea eta beste aplikazio batzuekin prozesuak optimizatzeko, erabakiak hartzeko, automatizatzeko edo produktu eta zerbitzu berritzaileak garatzeko.

*2. oinarria. Entitate onuradunak.*

2.1. Entitate onuradunak izango dira Gipuzkoan kokatuta dauden eta jasotako dirulaguntzarekin egindako hobekuntzak lekuko lantokietara aplikatzen badituzte.

2.2. Ezingo dira onuradun izan Europar Batasuneko Batzordeak dirulaguntza legez kontrakoa dela eta merkatu bateratuarekin bateraezina dela aldez aurretik erabaki ondoren, laguntzak berreskuratzeko agindupean dauden enpresak; ezta krisian dauden enpresak ere.

2.3. Dirulaguntza hauetara enpresak bakarka edo entitate talde batek bultzatutako proiektuak aurkeztu daitezke. Talde proiektuetan, entitate batek lidergoa hartuko du eta taldekideen lider bezala arituko da. Elkarlan proiektuen kasuan, proiektuan parte hartzen duen enpresa multzotik, Gipuzkoako enpresei dagokien parteak bakarrik jasoko du dirulaguntza.

ANEXO I

*Bases específicas de la línea de subvención: Datekin*

*Base 1.ª Objeto.*

El sector industrial ha iniciado ya su transformación digital, impulsada por la incorporación de tecnologías disruptivas y por el uso creciente de las tecnologías de la información. Este proceso está favoreciendo la evolución hacia entornos productivos más eficientes, conectados e integrados con su cadena de valor.

En este contexto, los datos se han consolidado como un recurso clave, tal y como ya ha sucedido en sectores como la banca o los medios de comunicación. Las empresas industriales más avanzadas están aprovechando los datos, los análisis avanzados y las capacidades de la inteligencia artificial para mejorar la creación de valor y transformar progresivamente sus modelos de negocio.

Asimismo, la digitalización permite avanzar hacia procesos productivos más flexibles y modulares, gracias a equipos inteligentes, tecnologías de automatización y sistemas capaces de adaptarse al entorno. Esta capacidad ofrece a las empresas la posibilidad de responder con mayor rapidez a la demanda, ajustando volúmenes de producción y atendiendo a necesidades de mayor personalización.

No obstante, la transformación digital no debe limitarse exclusivamente al ámbito productivo. Su impacto abarca el conjunto de procesos empresariales, incluidos el aprovisionamiento, la selección de personal, el control de calidad, la monitorización de procesos, el diseño de producto, la atención a clientes o el desarrollo de nuevos servicios.

Tras años de iniciativas orientadas a sensorización y recogida de datos, persiste un amplio potencial por explorar en el uso y procesamiento de esta información mediante técnicas avanzadas e inteligencia artificial. Este potencial puede contribuir a mejorar procesos de distribución y suministro, prácticas comerciales, la organización del trabajo, la eficiencia productiva o el desarrollo de nuevos modelos de negocio vinculados a la servitización.

Esta línea pretende acelerar entre las empresas guipuzcoanas la valorización de los datos y/o la adopción de inteligencia artificial para la transformación digital de la empresa y su modelo de negocio; se apoyará la contratación externa de agentes especializados: expertos en convertir los datos disponibles en información relevante y en desarrollar soluciones avanzadas de explotación de datos e inteligencia artificial aplicables al ámbito empresarial.

Los proyectos podrán estar relacionados con ámbitos como Big Data, Machine Learning, procesamiento de lenguaje natural, visión artificial, inteligencia artificial generativa y otras aplicaciones destinadas a la optimización de procesos, la toma de decisiones, la automatización o el desarrollo de productos y servicios innovadores.

*Base 2.ª Entidades beneficiarias.*

2.1. Serán entidades beneficiarias las empresas radicadas en Gipuzkoa y que apliquen los desarrollos objeto de subvención a las instalaciones de nuestro territorio.

2.2. Quedan excluidas como beneficiarias las empresas que estén sujetas a una orden de recuperación pendiente tras una decisión previa de la Comisión de la Unión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado común, así como las empresas en crisis.

2.3. A estas subvenciones podrán presentarse proyectos impulsados por empresas de manera individual o por un conjunto de entidades, en cuyo caso una ejercerá de líder de todas ellas. En el caso de proyectos en colaboración, del conjunto de empresas que participen en el proyecto únicamente serán objeto de subvención la parte correspondiente a las empresas de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2026-01254

*3. oinarria. Proiektuaren baldintzak.*

3.1. Lerro honek bi laguntza eremu aurreikusten ditu, enpresen heldutasun digitalaren mailaren arabera eta kalitatezko datuak eskuragarri dauden ala ez kontuan hartuta:

a) Digitalizazio-maila nahikoa duten enpresak, ustiatzeko moduko datuak dituztenak eta erabiltzeko eta ustiatzeko proiektu bat planteatzen dutenak.

b) Beren prozesuen digitalizazio-maila jakin bat duten enpresak, oraindik datu-azpiegitura finkatuta ez dutenak edo datuen erabilera sistematikoa hasi ez dutenak, eta beren sistemetatik datorren informazioa erabiltzeko aukera aztertu nahi dutenak.

3.2. Proiektuek laguntza aditua izan beharko dute, enpresatik kanpokoa. Enpresa horiek honako kasuetan lagunduko dute:

3.1.a) ataleko enpresen kasuan.

1. Enpresan eskuragarri dauden datuak benetan aprobetxatzea ahalbidetzen duten soluzioen garapenean eta/edo ezarpenean.

2. Adimen artifizialeko teknologia aurreratuen bidezko garapenak, horiek proiektuaren helburuari laguntzen diotenean.

Proiektuen helburua izango da teknologia aurreratuak aplikatzea, datuak aprobetxatzeko eta, bereziki, adimen artifizialean oinarritutako soluzioak erabiltzeko, enpresen eraginkortasuna, berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzeko. Hainbat arlotara bideratutako ekimenak aurkeztu ahal izango dira, hala nola industria-prozesu adimendunak, zerbitzu adimendunak, erabakiak hartzen laguntzeko sistemak, logistika aurreratua, mantentze prediktiboa, plangintza adimenduna edo enpresa-prozesuen optimizazioa, esaterako erosketak, stocken kudeaketa, salmentak eta marketin digitala. Bereziki baloratuko da proposamenek adimen artifizialeko teknologiak sartzea prozesu horiek eraldatzeko eta hobetzeko elementu nagusi gisa.

3.1.b) ataleko enpresen kasuan.

3. Aholkularitza espezializatua, enpresaren egungo egoeraren diagnostikoa egiteko datuen arloan, datuaren gobernantza hobetzeko aukerak identifikatzeko eta tresna estandarren edo adimen artifizialaren bidez datuak ustiatzeko aplika daitezkeen ibilbide orriak eta erabilera-kasuak definitzeko. Helburua da datuak ustiatzeko eta aplikatzeko etorkizuneko proiektuetarako oinarriak ezartzea.

*4. oinarria. Dirulaguntzaren xede diren jarduerak eta diruz lagundu daitezkeen gastuak.*

4.1. Entitate bakoitzak proiektu bakar bat aurkez dezake deialdi bakoitzeko. Eskaera bat baino gehiago aurkeztuz gero, aurrena aurkeztutakoa bakarrik hartuko du kontuan prozeduraren instrukzio organoak.

4.2. 3.1.a) ataleko enpresen kasuan, diruz lagundu ahal izango dira:

— Aholkularitzako eta proiektuak garatzeko kanpoko zerbitzuak kontratatzeko kostuak.

— Inbertsioak, betiere proiektua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak badira, eta enpresak datuak lortzeko aurretik egindako inbertsioen osagarriak badira. Inbertsioak ezingo dira izan proiektuaren kostu osoaren % 25 baino handiagoak.

4.3. 3.1.b) ataleko enpresen kasuan, diruz lagundu ahal izango dira:

— Aholkularitzako eta proiektuak garatzeko kanpoko zerbitzuak kontratatzeko kostuak.

— Inbertsioak, betiere proiektuaren kostu osoaren % 25 gainditzen ez badute.

*Base 3.ª Requisitos del proyecto.*

3.1. Esta línea contempla dos ámbitos diferentes de apoyos, en función del nivel de madurez digital de las empresas y la fase en que se encuentre respecto a la disponibilidad o no de datos de calidad:

a) Empresas que cuenten con un nivel de digitalización suficiente, que ya disponen de datos susceptibles de ser explotados y que planteen un proyecto para su uso y explotación.

b) Empresas que cuenten con un cierto nivel de digitalización de sus procesos, que aún no disponen de una infraestructura de datos consolidada o no han iniciado el uso sistemático de los mismos, y que deseen analizar la posibilidad de utilización de información procedente de sus sistemas.

3.2. Los proyectos deberán contar con un acompañamiento experto, ajeno a la empresa, quienes apoyarán:

En el caso de las empresas del apartado 3.1.a).

1. En el desarrollo y/o implantación de soluciones que permitan el aprovechamiento efectivo de los datos disponibles en la empresa.

2. Mediante tecnologías de inteligencia artificial cuando estas contribuyan al objetivo del proyecto.

Los proyectos deberán tener como finalidad la aplicación de tecnologías avanzadas que permitan aprovechar los datos, y en particular de soluciones basadas en inteligencia artificial, para impulsar la eficiencia, la innovación y la competitividad de las empresas. Podrán presentarse iniciativas orientadas a ámbitos como los procesos industriales inteligentes, servicios inteligentes, sistemas de apoyo a la toma de decisiones, logística avanzada, mantenimiento predictivo, planificación inteligente o la optimización de procesos empresariales como por ejemplo compras, gestión de stocks, ventas y marketing digital. Se valorará especialmente que las propuestas incorporen tecnologías de inteligencia artificial como elemento central para la transformación y mejora de dichos procesos.

En el caso de las empresas del apartado 3.1.b).

3. Consultoría especializada orientadas a realizar un diagnóstico del estado actual de la empresa en materia de datos, identificar oportunidades de mejora en la gobernanza del dato y definir una hoja de ruta y casos de uso aplicables de explotación de datos mediante herramientas estándar o inteligencia artificial. El objetivo es sentar las bases para futuros proyectos de explotación de datos e inteligencia artificial aplicada.

*Base 4.ª Actuaciones objeto de subvención y gastos susceptibles de apoyo.*

4.1. Cada entidad sólo podrá presentar un único proyecto por convocatoria. En caso de presentar más de una solicitud, el órgano instructor del procedimiento únicamente considerará la presentada en primer lugar.

4.2. En el caso de las empresas del apartado 3.1.a), serán subvencionables:

— Los costes de contratación de servicios externos de asesoramiento y desarrollo de los proyectos.

— Las inversiones, siempre que sean necesarias para la buena ejecución del proyecto, y sean de carácter complementario a las previamente realizadas por la empresa para la obtención de los datos. Las inversiones no podrán superar el 25 % del coste total del proyecto.

4.3. En el caso de las empresas del apartado 3.1.b), serán subvencionables:

— Los costes de contratación de servicios externos de asesoramiento y desarrollo de los proyectos.

— Las inversiones, siempre que no superen el 25 % del coste total del proyecto.

EK\CV GAO-I-2026-01254

*5. oinarria. Dirulaguntzen ehunekoa eta gehieneko zenbatekoa.*

5.1. 3.1.a) ataleko proiektuen kasuan, dirulaguntza diruz lagun daitezkeen kostuen % 40koa izango da. Eskatzailea ETE bat bada, ehuneko horri % 10 gehituko zaio. Lanak adimen artifizialaren eremukoak badira, diruz lagundu daitekeen ehunekoari % 20 gehituko zaio.

3.1.b) ataleko proiektuen kasuan, dirulaguntza diruz lagundu daitezkeen kostuen % 30ekoa izango da. Eskatzailea ETE bat bada, ehuneko horri % 10 gehituko zaio. Lanak adimen artifizialaren eremukoak badira, diruz lagundu daitekeen ehunekoari % 10 gehituko zaio.

5.2. Proiektuko gehieneko dirulaguntza honako hau izango da:

— 3.1.a) ataleko proiektuaren kasuan, 40.000 euro.

— 3.1.b) ataleko proiektuaren kasuan, 20.000 euro.

— Lankidetza proiektuen kasuan, proiektu guztien gehieneko dirulaguntza % 25 handiagoa izango da.

*6. oinarria. Balorazio irizpideak.*

6.1. 3.1.a) ataleko proiektuek erabateko lehentasuna izango dute, eta lehenengo aztertuko dira; aztertu ondoren aurrekontu soberakinik badago, 3.1.b) motako proiektuak aztertuko dira. Bereziki baloratuko da adimen artifizialean oinarritutako soluzioak aplikatzea, enpresen eraginkortasuna, berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzeko.

6.2. Ez zaie laguntzarik emango gehieneko puntuazioaren % 50 baino gutxiago lortzen duten proiektuei.

6.3. Eskaerei 100 puntuko balorazioa emango zaie gehienez ere, ezarritako irizpide hauen arabera:

Proposamenaren balioa eta bikaintasuna: gehienez 40 puntu. Atal hau baloratzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

— Deialdiaren helburuekin eta funtsezko teknologiekin bat etortzea (gehienez 10 puntu). Proiektua deialdiaren helburuetara zenbateraino egokitzen den, eta 3. oinarrian, 3.2 puntuan identifikatutako teknologia estrategikoekin duen lotura.

— Berrikuntza eta garapen-maila (gehienez 20 puntu). Proiektuaren berrikuntza-maila, honako hauek kontuan hartuta: produktu edo zerbitzuen garapenean egiten den aurrerapen esanguratsua, proposatutako soluzioaren irismena, eta merkatuaren aukera edo jorratzen duen beharra.

— Bideragarritasun teknukoa (gehienez 10 puntu). Proiektuaren helburuak lortzeko proposatutako metodoen eta tekniken egokitasuna.

Inplementazioaren kalitatea eta eraginkortasuna: gehienez 25 puntu. Atal hau baloratzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

— Proiektuaren argitasuna, zehaztasuna eta koherentzia (gehienez 5 puntu). Zehaztasuna proiektuaren deskribapenean, lanplanean, jarraipen-adierazleen sendotasunean eta arriskuen kudeaketan.

— Lantaldearen gaitasunak eta kudeaketa-egitura (gehienez 10 puntu). Lantaldearen esperientzia eta gaitasunak, kudeaketa-egituraren egokitzapena eta rolen banaketa. Kontuan hartuko da emakumeak taldean integratzea aniztasunaren eta ekitatearen funtsezko faktore gisa.

— Eraginkortasuna baliabideak erabiltzean (gehienez 10 puntu). Aurrekontuaren egokitzapena eta justifikazioa, baita proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko finantza-baliabideen eta baliabide materialen esleipenaren eraginkortasuna ere.

*Base 5.ª Porcentaje y cuantía máxima de subvención.*

5.1. En el caso de los proyectos del apartado 3.1.a), la subvención será del 40 % de los costes subvencionables Si el solicitante es una PYME se añadirá un 10 % adicional a este porcentaje. En el caso de que los proyectos sean del ámbito de la inteligencia artificial, se añadirá un 20 % adicional al porcentaje subvencionable.

En el caso de los proyectos del apartado 3.1.b), la subvención será del 30 % de los costes subvencionables Si el solicitante es una PYME se añadirá un 10 % adicional a este porcentaje. En el caso de que los proyectos sean del ámbito de la inteligencia artificial, se añadirá un 10 % adicional al porcentaje subvencionable.

5.2. El importe máximo de subvención por proyecto será:

— En el caso de proyecto del apartado 3.1.a) de 40.000 euros.

— En el caso de proyecto del apartado 3.1.b) de 20.000 euros.

— En el caso de proyectos en colaboración el importe de subvención máxima del conjunto de los proyectos será un 25 % superior.

*Base 6.ª Criterios de valoración.*

6.1. Tendrán prioridad absoluta los proyectos del apartado 3.1.a), que serán analizados en primer lugar; en el caso de que, tras su análisis, exista excedente presupuestario, se analizarán los proyectos tipo 3.1.b). Se valorará especialmente la aplicación de soluciones basadas en inteligencia artificial, que impulsen la eficiencia, la innovación y la competitividad de las empresas.

6.2. No se concederán ayudas a los proyectos que obtengan una puntuación inferior al 50 % de la puntuación máxima total.

6.3. Las solicitudes serán valoradas hasta un total de 100 puntos, conforme a los siguientes criterios:

Valor y excelencia de la propuesta: hasta 40 puntos. Para la valoración de este apartado se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

— Alineación con los objetivos de la convocatoria y tecnologías clave (hasta 10 puntos). Grado de adecuación del proyecto a los objetivos de la convocatoria, así como su relación con las tecnologías estratégicas identificadas en la base 3.ª, 3.2.

— Innovación y grado de desarrollo (hasta 20 puntos). Nivel de innovación del proyecto, considerando: el avance significativo que representa en el desarrollo de productos o servicios, el alcance de la solución propuesta, y la oportunidad de mercado o la necesidad que aborda.

— Viabilidad técnica (hasta 10 puntos). La adecuación de los métodos y técnicas propuestos para alcanzar los objetivos del proyecto.

Calidad y eficiencia de la implementación: hasta 25 puntos. Para la valoración de este apartado se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

— Claridad, concreción y coherencia del proyecto (hasta 5 puntos). La precisión en la descripción del proyecto, el plan de trabajo, la solidez de los indicadores de seguimiento y la gestión de riesgos.

